

ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK
BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.-

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua.-

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

II. EGITATE EZARGARRIA

3. artikulua.-

Administrazio Lokalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzten du egitate ezargarrria, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.-

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2.- Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

- a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.
- b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraipen zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantenimentua barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.
- c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan: obren eraikitzaileak edo kontratistak.

5. artikulua.-

Tasak ordaintzera behartuta daude:

a) partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.

b) partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

6. artikulua.-

Ordenantza honetatik eratortzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

7. artikulua-

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. OINARRI EZARGARRIA

8. artikulua.-

Oinarri ezargarrria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. KUOTA

9. artikulua-

Zerga kuota tarifa bat, espresuki erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua-

Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

11. artikulua.-

Administrazio Lokalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Eranskinak ordainarazpen bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX. TASEN KUDEAKETA

12. artikulua.-

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urraketak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X. AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, bertan adierazten den egunean onartu zen behin betikoz. 2010eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

XI. ERANSKINA

Onarpena: 2009ko urriak 26

A epigrafea: Zabor bilketa eta ezeztapen zerbitzua.

Debagoieneko Mankomunitateak proposatutako ordenantza gurea egiten dugu eta ondorengo da:

HIRI HONDAKINEN BILKETA, GARRAIO ETA KUDEAKETA ZERBITZUAREN TASAK DEBAGOIENEAN

1. artikulua. Lege-oinarria.

Apirilaren 21eko 10/98 Legeak -Hondakinena-, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak -Tokiko Araubidearen Oinarriena- eta aplikagarria den beste araudian ezarritakoaren arabera, Tokiko Erakundeen ardura da hiri hondakin eta antzekoen bilketa, garraio eta kudeaketa zerbitzua ematea.

Udal honek, aipaturiko zerbitzua Debagoieneko Mankomunitatearen bitartez ematen du.

Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak -Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen- 20. artikuluan ezarritakoaren arabera, Udal honek jarraituko du zerbitzu honi dagokion tasa ordainarazten.

2. artikulua. Definizioak.

Hiri Hondakin eta antzekoak: apirilaren 21eko 10/98 Legeak -Hondakinena- finkatzen duen definizioa.

Bilketa puntua: nahastutako hiri hondakinak (zaborra) biltzeko finkatutako puntua, bai lurreko puntuak, bai edukiontziak dauzkatena. Ez dira sartzen definizio honetan gaikako bilketak egiteko puntuak edo edukiontziak.

3. artikulua. Zerbitzuaren erabilera.

Mankomunitatearen zerbitzua, indarrean dauden Legeak, Erregelamenduak eta Arauak errespetatuz erabiliko da.

4. artikulua. Egitate zergagarria.

Hiri hondakinak bildu, garraiatu eta kudeatzeko zerbitzua ematea da. Hiri hondakin gaikako bilketak ez dira egitate zergagarriak tasa honi dagokionez.

5. artikulua. Zerga ordaindu beharra.

Derrigorrezkoa eta orokorra den zerbitzu hau ezartzeak sortzen du. Zerbitzuaz etxebizitzaren eta merkataritza, industria eta zerbitzu-jardueren titularrak baliatzen direla ulertzen da, eta hau ordaindu beharretik ez da pertsona fisiko edo juridikorik salbuetsita geratuko.

6. artikulua. Subjektu pasiboak.

Etxebizitzaren baten -bertan norbait bizi edo ez- edo merkataritza, industri eta zerbitzu-jarduerak egiteko, edozein titulurengatik, lokalen baten jabe edo okupatzaile diren pertsona fisiko eta juridikoak harrapatzen ditu tasa honek.

Ez dira subjektu pasibotzat hartuko:

Ibilgailuen garajeen titularrak, horietan ez bada irabazi-asmoko jarduerarik egiten.

Etxebizitzarekin zerikusirik ez duten, edozein motatako jarduera gauzatu daitekeen lokal eta etxabeak, jarduera hori ematen ez den bitartean.

Aurri-deklarazioa duten eraikinen edo, aurri-deklaraziorik gabe ere, objetiboki beraietan inor bizitzeko moduan ez dauden eraikinen jabeak.

Udal ongintzaren erroldan barne harturik dauden zergadunak.

Udal ongintzak guztiz mantentzen dituen asiloak eta gainerako antzeko zentroak, inolako dirulaguntzarik ez dutenak.

Subjektu pasiboa epealdiaren lehenengo egunean etxe edo lokalaren jabea edo jabe-komunitatea dena izango da. Maizterrak jabearen baimena beharko du hiri hondakin bilketa zerbitzuan bera zergaduna izatea nahi badu. Maizterrak jabeak sinatutako alokairu kontratua aurkeztean baimena emantzat joko da.

7. artikulua. Zergadunen sailkapena.

Tasa hau aplikatzeko, ondoren zehaztuko diren kategoria, talde eta azpitaldeetan sailkatuko dira zergadunak.

KATEGORIA 1. Etxebizitza partikularrak	Azpitaldea
Taldea 10. Etxebizitza partikularrak	
Etxebizitza partikularrak	101
KATEGORIA 2. Biltegiak eta komertzioak	
Taldea 20. Biltegiak oro har	

Biltegiak oro har	200
Olio-biltegiak	201
Edari-biltegiak	202
Koloni biltegiak	203
Pentsu-biltegiak	204
Paper eta pintura-biltegiak	205
Industri produktuen biltegiak	206
Zur eta egur-biltegiak	207
Burdin biltegiak	208
Taldea 21. Jantzi-dendak	
Boutique eta jantzigintza	210
Artile dendak	211
Kinkila dendak (mertzeria)	212
Moda dendak	213
Ehun dendak	214
Tindategiak eta ikuztegiak	215
Zapata eta oinetako-dendak	216
Euritako, eguzkitako eta kapela dendak	217
Taldea 22/23. Luxuzko gai eta apaingarrien dendak	
Arma dendak eta Ehiza eta Arrantzarakoak	220
Kirol dendak	221
Drogeriak	222
Bitxi dendak	223
Jostailu dendak	224
Liburu dendak	225
Ile apaindegiak eta edertze-aretoak	226
Lurrindegiak	227
Opari dendak	228
Erloju dendak	229
Taldea 24. Etxea egokitzeko artikuluen dendak	
Elektrizitate-dendak	240
Elektratresna-dendak	241
Burdindegia eta brikolaje dendak	242
Altzari-dendak	243
Paper eta pintura-dendak	244
Saneamendu-gaien dendak	245
Taldea 25. Kontsumo-gaien dendak	
Ikaztegiak	250
Estankoak	251
Farmaziak	252
Okindegiak	253
Egunkari eta aldizkari-saltokiak	254
Kiniela-saltokiak	255
Taldea 26/27. Jarduera Profesionaletarako lokalak	
Abokatuak	260
Arkitektoak eta azterlan-bulegoak	261
Haginlariak	262
Farmaziak	263
Argazki dendak	264
Gestoriak eta autoeskolak	265

Edertze institutuak	266
Inprentak	267
Medikuak	268
Notarioen bulegoak	269
Sindikatuoen bulego eta zentralak	270
Taldea 28. Zerbitzuetarako lokalak	
Eskola, ikastetxe, ikastola, haurtzaindegi eta gainerako irakaskuntza lokalak	280
Elizak, kaperak, kulturako lekuak, komentuak	281
Herri-eraikinak: Udaletxeak, Mankomunitatea, Probintzia, Eusko Jauriaritza, azokak, hiltegiak	282
Liburutegiak, kultur aretoak, erakustokiak, kirol-elkarteak	283
Polikiroldegiak, igerilekuak, kirol guneak, futbol-zelaiak, zezen plazak	284
Jubilatu Elkarteak, Zaharren egoitzak	285
KATEGORIA 3. Ostalaritza, elikadura eta zerbitzuak.	
Taldea 30/31. Elikadura	
Hegaztiak eta arrautzak	300
Karameluak	301
Harategiak	302
Kolonialak	303
Gozodendak	304
Ekonomatoak	305
Frutategiak	306
Gozotegiak	307
Arrandegiak	308
Supermerkatuak	309
Janari dendak	310
Esne dendak	311
Taldea 32. Ostatuak	
Ostatuak	320
Fondak	321
Hostalak	322
Hotelak	323
Pentsioak	324
Erresidentziak	325
Taldea 33. Edariak	
Barrak	330
Bodegak	331
Kafetegiak	332
Klubak	333
Pubak	334
Snak-Barrak	335
Tabernak	336
Ardandegiak	337
Taldea 34. Jatorduak	
Askaldegia	340
Jatetxeak, Self-service-ak	341
Elkarte gastronomikoak	342

Taldea 35. Zerbitzuak	
Bidai agentziak	350
Bankuak	351
Aurrezki-etxeak	352
Aseguru-etxeak	353
Posta, telefonoa, epaitegia, polizia, Ertzaina	354
KATEGORIA 4. Industria jarduerak eta Zerbitzuak	
Taldea 40. Produkzio-industriak	
Aroztegiak, zerrategiak, altzarigintza	400
Errementaldegiak, galdarategiak	401
Soldadura	402
Sopletistak	403
Lantegiak eta industriak oro har	404
Trokeleriak, moldeak eta matrizeak	405
Automobil-konponketak	406
Iturginak	407
Taldea 41. Aisialdi-industriak	
Zine-aretoak	410
Festa-aretoak	411
Jolas aretoak	412
Antzokiak	413
Taldea 42. Zerbitzuak	
Garajeak negozio gisa	420
Ibilgailu-konponketa	421
Industri hornikuntzak	422
Garraio agentziak	423
Garbitasun enpresak	424
KATEGORIA 5. Aurretik itundutako zerbitzuak	
Taldea 50. Aurretik itundutako zerbitzuak	
Aurretik itundutako zerbitzuak	500
Klinikak	501
Ospitaleak	502
Anbulatorioak	503

8. artikulua. Tarifak, ekibalentziak eta irizpideak.

Zergadun bakoitzak, bere kategorian, dagokion tarifaren tasa ordaindu behar du. Tarifa bakoitzeko tasak 1.1 tarifarekiko hurrengo ekibalentzia gordetzen du.

KATEGORIA	TARIFA	LANGILE KOPURUA	EKIBALENTZIAK	TASA 2010 (€/hiruhilero)
1. Etxebizitzak	1.0	-	0,40	10,05 €
1.1	-	1,00		25,10 €
2. Biltegiak eta komertzioak	2.1	≤2	3,18	79,85 €
2.2	≤5	5,30		133,05 €
2.3	≤15	10,60		266,20 €
2.4	>15	15,90		399,25 €
3. Ostalaritza, elikadura eta zerbitzuak	3.1	≤2	4,24	106,45 €
3.2	≤5	7,95		199,65 €
3.3	≤15	13,25		332,80 €
3.4	>15	18,55		465,85 €

4. Industria jarduerak eta zerbitzuak	4.0	≤2	3,18	79,90 €
4.1		≤5	8,48	212,95 €
4.2		≤15	15,90	399,30 €
4.3		≤50	21,20	532,40 €
4.4		≤100	26,50	665,55 €
4.5		≤500	31,80	798,65 €
4.6		>500	37,10	931,80 €
5. Aurretik itundutako zerbitzuak	5.1	-	21,20	532,35 €

Tasa hauek aplikatzeko ondorengo irizpideak izango dira kontuan:

Etxebizitzak (1 kategoria). Bi tarifetan banatzen dira:

1.0. Lurzoru ez urbanizagarrian kokatutako etxebizitzak (landa auzoak), hiri hondakin bilketa puntua 150 m baino urrunago eta 500 m baino gertuago daukatenak. Tarifa honetan sartzen dira ere artikuluko honetako 3.a. puntuan deskribaturiko kasuak.

1.1. Beste etxebizitzak. Tarifa honetan sartzen dira lurzoru urbano edo urbanizagarrietan kokatutako etxebizitzak (artikuluko honetako 3.a. puntuan azaltzen den salbuespenarekin), eta baita lurzoru ez urbanizagarrian kokaturikoak, baina bilketa puntua 150 metro edo gertuago daukatenak, bilketa puntu hori erabiltzailearen auzoan kokaturik dagoen ala ez kontuan izan gabe.

Besteak (2, 3, 4 eta 5 kategorietakoak):

Lurzoru ez urbanizagarrian kokaturikoak (landa auzoetan). Bilketa puntua 150 m edo gertuago badaukate, dagokien tarifa osoa ordainduko dute. Bilketa puntua 150 m eta 500 m artean badaukate, dagokien tarifaren %40a ordainduko dute. Bilketa puntua 500 m baino urrunago badaukate, ez dute tasarik ordaindu beharko.

Lurzoru urbano edo urbanizagarrian kokaturiko zergadunak dagokien tarifa osoa ordainduko dute, artikuluko honetako 3.b. puntuan azaltzen den salbuespenarekin.

Lurzoru urbano edo urbanizagarrian kokaturiko zergadunak bilketa puntua 150 metro edo gertuago eduki behar dute. Kasuren baten hau ez bada betetzen, eta Mankomunitateak kasua aztertu ondoren, bilketa puntua 150 metro edo gertuagora jartzea ezinezkoa dela ebazten badu:

Etxebizitzak: 1.0. tarifa ordainduko du.

Besteak: dagokion tarifaren %40a ordainduko du.

Hiri hondakin bilketaren maiztasuna edo asteko bilketa kopuruak ez du zerikusirik izango tasa gisara erabiltzaileek ordaindu beharko duten zenbatekoarekin.

Eraikina edo etxebizitza hutsik egoteak ez du bere jabea dagokion tasa ordaintzetik salbuesten.

Jolas elkarteak. Ondorengo parekidetasuna izango dute:

≤ 50 bazkide, 3.1 tarifaren parekide izango da.

> 50 bazkide, 3.2 tarifaren parekide izango da.

Jarduera profesionalak edo merkataritza eta zerbitzuen ingurukoak, aldi berean bizileku diren etxebizitza edo lokaletan egiten direnean: ile-apaindegiak, kontsultategiak, etab. Alde batetik etxebizitza hartuko da kontuan, eta bestetik bertan zertzen den jarduera, dagozkien tarifak finkatzeko, zeren eta jarduera profesionalak nahiz etxebizitzak, bakoitzak bere hondakinak sor baititzake eta bakoitzari bere tasa aplikatu behar zaio.

Biltegitarako lokalak. Zergaduntzat hartuko da industri edo merkataritza-jardueraren bat biltegian bertan edota bertatik egiten duena; baina ez da zergaduntzat hartuko lokal hori jardueraren baterako beharrezko materialak gordetzeko bakarrik erabiltzen duena, jarduera bera ez biltegian baizik eta beste lokal edo lekuren batean egiten badu udalerrri berean, eta zergadunen eroldan sartua baldin badago.

Kultu-lekuak eta komentuak. 2.1. tarifan sailkatuko dira.

Eskolak, ikastolak, akademiak, ikastetxeak, haurtzaindegiak, etab. 2. kategorian sailkatuko dira, eta dagokien tarifa aplikatuko zaie irakasle-kopuruaren arabera.

Zahar eta ikasleen egoitzak 2. kategorian sailkatuko dira, ohe-kopuruaren arabera tarifa aplikatuz.

9. artikulua. Errolda.

Hiruhilero Errolda bat egingo da; bertan zergadunak agertuko dira, baita Ordenantza honen aplikazioz likidatuko zaizkien kuotak ere. Errolda hori ezagutarazi eta erreklamazioak jasotzeko, jendaurrean jarriko da 15 egunez udaletxeko iragarki-taulan, eta aldi berean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean emango da argitara, eta ediktu bidez zabalduko da herrian ohikoa den eran.

Jendaurrean erakusteko epea bukatu ondoren, aurkezturiko erreklamazioak ebatziko ditu Udalak, eta behin-betiko onetsiko du Errolda, kobrantza-agirietarako oinarritzat hartuko delarik.

10. artikulua. Bajak.

Bajak, beranduenik ere, kobrantza-aldi baten azken lanegunean jakinarazi behar dira, hurrengo kobrantza-aldian eragina izaten hasteko. Baldintza hau betetzen ez dutenak beharturik daude zerga ordaintzera.

Merkataritza, ostalaritza, industria eta zerbitzuetan baja data, zergadunak Udalean aktibitate baja adierazten duen eguna izango da.

11. artikulua. Altak.

Ekitaldi barruan egindako altak, zerga ordaindu beharra sortzen den egunetik izango dute eragina. Administrazioak erroldako altari dagokion likidazioa jakinaraziko die subjektu pasiboari, ondorengo puntuak zehaztuz:

Likidazioaren osagai funtsezkoenak.

Horren aurka jotzeko erabil daitezkeen bide nagusiak, inpugnazioak zein epetan eta zein erakunderen aurrean jar daitezkeen adieraziz.

Zerga-zorra zein lekutan, epetan eta eratan ordaindu behar den.

12. artikulua. Sortzapena.

Tasa hiruhilero kobratuko da.

Kudeaketaren inguruan, Ordenantzaren J epigrafean (Ur-zerbitzua) arautzen den bezala arautuko da epigrafe hau ere.

B epigrafea: Estolderia zerbitzua

Ondoko tarifa aplikatuko da estolderia publikoa erabiltzeagatik edota partikularrak zaindu eta ikuskatzeagatik:

Etxeoak: ur kontsumoa (m³) x 0,303 €/ m³

Besteak: ur kontsumoa (m³) x 0,606 €/ m³

Udal saretik urrik ez dutenek 40 m³-ko ur-kontsumoari dagokion tasa izango dute.

Gipuzkoako Ur Kontsurtzioak prestatutako Erreglamentua, Udalak ordaindu behar duen Azpiegiturak Finantziatzeko Kanona arautzen duenak, Ordenantza honen osagarri izango da.

C epigrafea: interesatuaren eskariz dokumentuak luzatzea.

a.-

Konpentsazio eta birpartzelazio proiektuak 1963,50 €

Hondamen-espeditentak 392,65 €

Konpentsazio batzordearen aldeko desjabetzapen espeditentak 1308,95 €

Hirigintza zedulak 116,35 €

Finken normalizazioa 436,35 €

b.-Fotokopiak

Ziurtatutako kopiak:

A4	0,20 €
A3	0,40 €
Lektorean egindako A4	0,60 €
DIN A 4	0,10 €/bakoitzeko
DIN A 4 (Gazte informazio zerbitzua ematen dutenek)	0,05 €/bakoitzeko
DIN A 3	0,20 €/bakoitzeko
DIN A0 tamainakoak	3,10 €/bakoitzeko
DIN A1 tamainakoak	1,50 €/bakoitzeko
Paper orrian kopia	3,10 €/m2
Poliester orrian kopia	9,30 €/m2
Paper begetalean kopia	5,90 €/m2
Mikrofilm lektoreko kopia	0,50 €
c.-Erreprografia zerbitzua.	
Digitalizatutako irudia	0,75 €
Irudia internetik bidalita <100 kb	0,75 €
100 kb-teko tarte bakoitza	0,35 €
Zuri beltzean inprimatutako orria	0,10 €
Koloretan inprimatutako orria	0,20 €
Koloretan inprimatutako irudia	0,35 €
Paper fotografikoarekin inprimatutakoa	0,75 €
Disketean emandakoa	0,75 €
CD-ROMean emandakoa	1,50 €
d.-Hirigintza kontsultak (dokumentua luzatzen bada)	48,50 €
e.-Digitalizatutako kartografiaren kopiak	
-Kartografia osoa diskettean	301,40 €
-Paperezko kopia (orri bakoitza)	16,35 €
-Ploteatutako kopia (A-4)	12,30 €
-Ploteatutako kopia (A-3)	16,35 €
-Ploteatutako kopia (Ha)	244,40 €
f.-Dokumentuen konpultsak	
-30.kopia arte (6 lehenak dohain)	0,20 €/orriko
-31.kopiatik aurrera	0,30 €/orriko
g.-Telefax zerbitzua	0,95 €/orriko
D epigrafea: Hileta zerbitzua	€
a) Hilobiraketa eskubideak: panteoian edo berjan	48,95

udal hilobi baten (10 urtez) 379,20

b) Panteoia edo berja izateagatik:

panteoia edo berja lagapenean jaso duenak, m2/urteko 20,85

c) Lurraren kostea, panteoiak eraikitzeke, m2 296,15

d) Eskualdaketengatik:

Lehenengo tarifa: Senar-emazte, guraso eta seme-alaben arteko oinordetza-eskualdaketak:

a) Panteoia edo berja eta bere lurra, m2 48,95

b) Lurra, panteoi edo berjarik gabe, m2 48,95

Bigarren tarifa: Lagapena edo beste edozein kontratu mota:

a) Panteoia edo berja eta bere lurra, m2 97,80

b) Lurra, panteoi edo berjarik gabe, m2 97,80

e) Gorpuzkiak lekualdatzeagatik:

Kanposantuko leku batetik bestera 22,50

Herritik kanpo 67,30

f) Kolunbario baten emakida, gehienez ere 10 urterako: 136,50

Kolunbarioaren plaka argazkiarekin 89,25

Zerbitzu honen gaineko guztiak zerbitzua arautzen duen Ordenantzan jasota daude. Kolunbarioa erabiltzen hasi aurretik kitatu beharko da tasa hau, autolikidazio sistema jarraituta.

E epigrafea: Azokako zerbitzuak hiru hilero

1. tarifa: Postu fijoak (€/ m2) 10,75

2. tarifa: Baserritarren postuak (€/metro lineal) 11,15

3. tarifa: Behin-behineko saltzaileen postuak (€/metro lineal) 22,35

4. tarifa: Saltzaile berezien postuak (€/ m2) 23,85

Azokara egun solteetan etortzen direnei, eguneko kobratuko zaie hiruhileko tasaren %10a.

F epigrafea: Hirigintza baimenen emakida €

6.000 € bitarteko aurrekontuak Salbuetsiak

6.000 eta 18.000 bitarteko aurrekontuak 113,65

18.000 eta 300.000 bitarteko aurrekontuak 340,50

300.000 €tik gorako aurrekontuak 567,65

Lurzatiak banandu eta elkartzeko baimenak

Lurzoru urbanoa eta urbanizagarria 0,144 €/m2

Lurzoru ez urbanizagarria

0-999 m2 artean 32,60 €/baimen bakoitzeko

1000-9999 m2 artean 54,35 €/baimen bakoitzeko

10000-29999 m2 artean 108,70 €/baimen bakoitzeko

30000-99999 m2 artean 217,40 €/baimen bakoitzeko

≥100000 m2 326,05 €/baimen bakoitzeko

Lehen erabilpenerako edo okupaziorako baimenak

Bost etxebizitza edota lokal arte, bakoitzeko 48,55 €

Bost etxebizitza edota lokaletik gora, hurrengoak 24,50 €

Industriak:

500 m2tik beherakoak 329,25 €

500 m2tik gorako industriak 652,60 €

Garajeek ez dute tasa hau ordainduko.

-a) Tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira nekazal, abere eta baso ustiaketara era printzipalean dedikatzen diren familia unitateek egiten dituzten instalazio edo eraikuntzalanak, familia hori elkarte edo komunitatea ez den bitartean; Nekazal turismokoak ere salbuetsita egongo dira.

Nekazal, abere edo baso ustiaketa partziala baldin bada, hau da, familia unitateko kideren batek beste jarduera bat burutzen badu, % 50eko hobaria izango du zergaren kuotan, instalazio edota eraikuntza lanik egiten denean; betiere elkarte edo komunitatea ez bada. Hobari fiskala baserritarraren jabegoko zatiari edo proportzioari emango zaio bakarrik.

Aipatutako onura fiskaletako bat eskuratu nahi duenak ondorengo agiriak aurkeztu beharko ditu:

*Hobaria izateko nahitanahiezko baldintza da Gizarte Segurantzako Nekazaritzako Erregimen Berezian alta emanda eta kotizazioen ordainketan egunean egotea egiaztatzea. Hau betetzea ezinezkoa bada, obra proiektuan nekazaritza eta abere-hazkuntza ustiapena dela frogatzen bada aurreko baldintza betetzen dela ulertzen da.

*Nekazal Ganbararen egiaztagiria, titularraren jarduera zehaztuz, eta aipatutako ustiaketa nagusia den ala mistoa den zehaztuz.

*Zinpeko aitorpena, ingurugiroa errespetatuta eta jarduera nagusi edo misto gisa, ustiakuntzarekin jarraituko dela adierazten duena.

*Aurrez adierazitako baldintzak ez betetzeak zuzenean onurak galtzea ekarriko du, indarrean dagoen araudiaren arabera eragin ditzakeen bestelako egintzen kaltetan gabe.

-b) Tasaren ordainketatik salbuetsita daude fatxada pintatzeko obrak eta pintatu aurretik egin beharko direnak (zarpeatu, lijatu eta abar). Era berean, salbuetsita daude leiho, balkoi eta pertsiaren aldaketa edo konponketak, aldaketa edo konponketa bizilagun guztiek egiten dutenean.

-c) 13/1996 Foru Arauaren arabera Foru Aldundiak egitasmo estrategiko bezala izendatutako proiektuek %95eko hobaria izango dute.

-d) Babestutako birgaitze obrek %90eko hobaria izango dute tasa honetan, baldin eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoa (mailegua edo/eta dirulaguntza) jasotzen bada. Hobaria izateko, udalean aurkezten den aurrekontuaren eta Eusko Jaurlaritzan aurkezten diren fakturen arteko aldea %20koa baino handiagoa ezingo da izan. Halaber, Udalean eta Eusko Jaurlaritzan obra berberak eta gremio berdinak deklaratu beharko dira hobaria izateko.

-e) Monumentu historiko-artistikoetan burutzen diren obra eta instalazioek %90eko hobaria izango dute, ondasuna kalifikatuta badago. Egitamu Orokorreko katalogoan dauden ondasunen inguruan, hobari hauek izango dituzte kategoria hauetakoeak:

Kategoria	Babes maila	Hobaria
BA-1-A/1	Gorena	%50
BA-1-A/1	Ertaina	%50
BA-3		%50
BA-1-A/2		%90
BA-1-B		%90
BA-2		%90

-f) Suteek eta hondamendiek sortutako kalteak konpontzeko obrak salbuetsita egongo dira.

-g) 100eko 95eko hobaria, baldin eta eraikuntza, instalazio edo obretan eguzki energiaren aprobeixamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira

autokontsumoari begira. Dena den, hobari hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioak Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreekin hornituta egotea.

-h) 100eko 50eko hobaria, babes ofizialeko etxebizitzekin zer ikusia duten eraikuntza, instalazio edo obrak direnean.

-i) 100eko 90eko hobaria, ezintasun edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak mugikortasunarekin erlasionatutako oztopo arkitektonikoak ezabatzeko egiten dituzten obra lanetan eta igogailuak jartzeko obratan. Hobaria izango du, soilik, mugikortasuna oztopatzen duten traba arkitektonikoak kentzera bideratuta dauden obren aurrekontuaren zatiak, hobariaren kopurua gehienez ere 3.000 eurokoa izango da eta hobaria izateko ezingo da izan eraikuntza berriko obra.

Hobari hau aitortzeko irizpideak dira:

-%33ko ezintasuna + 7 puntu, gutxienez, mugikortasun-arazoetan edo 2006ko abenduaren 14ko 39/06 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta besteen beharrea dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak ezarritakoari jarraituz mendekotasun egoera aitortuta eduki eta 8 eta 9. ekintzetan, etxe barruko eta kanpoko mugikortasunean zailtasunak azaltzen dituenean.

-Obrak egingo diren etxean erroldatuta egotea.

-Obra bukaerako faktura aurkeztea.

-Hobariaren kopurua kalkulatzeko, obraren kostearen ordainketa nola egingo den ziurtatzen duen komunitate-akordioaren ziurtagiria aurkeztea. Horren ezean, jabetza-portzentajea hartuko da kontutan.

-Hobariaren kopurua elbarrituari itzuliko zaio.

-Obrak egingo diren etxearen jabea elbarritua izan behar da edo bere gurasoak edo bere ezkontidea, edo seme-alabak, edo bikotekidea.

-Ezingo da igogailua jartzeko beste dirulaguntza edo zerga-salbuespenik eskatu, gutxienez, 10 urte pasa arte, eta gainerako baldintzak bete beharko dira, betiere.

-Aparteko egoera eta gertakariak banan-banan aztertuko dira.

-j) Igogailuak jartzeko obrei %50eko hobaria ematea; horretarako, baldintza hauek bete beharko dira:

-Hobaria igogailuen instalazio berriei emango zaie.

-Ondasunek etxebizitza erabilera izan beharko dute.

-Ondasunek, gutxienez, behe oina gehi hiru pisuko altura izan beharko dute (00+3).

-Ondasunek, gutxienez, 10 urteko antzinatasuna izan beharko dute.

-Hobariaren onuradunak, igogailurik izan ez eta berau jarriko duten ondasunen jabe komunitateak izango dira.

-Hasiera baten kuota osoa ordaindu beharko da; obra amaitutakoan, behin obra bukaerako faktura eta ordainketa agiria aurkeztu ondoren, hobariaren kopurua itzuli egingo da.

-k) Halaber, Debagoienako Mankomunitatea tasa honen ordainketatik salbuesita dago.

Hobari desberdinak ez dira akumulatuko eta beti hobari altuena aplikatuko da.

Hobari edo salbuespen hauen onuradun izateko baldintzak, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergarentzako bere Ordenantza arautzaileak jasotzen dituen berberak izango dira.

G epigrafea: Establezimenduak irekitzeko baimenen emakida

Tasari loturik dagoen jarduera behin-betiko martxan jartzea ulertuko da irekitzeko baimena.

Jarduera	IGOKA tramitatu gabe-€	IGOKA tramitazioarekin-€
Merkataritza	461,55	659,60

Zerbitzuak eta garajeak	592,80	790,75
Industria eta ostalaritza	790,75	988,80
Instalazioen legalizazioa (Aire egokitua, gas gordailuak...)	0	461,55
Jardueren legalizazioa	461,55	

Titularitate aldaketetan, jarduerak jarraitzen duenean eta aldaketarik ez dagoenean, ez da tasa kitatuko.

100 m²-tik gorako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimenduek eta solairuan eraikitako 500 m² baino gehiagoko industrialek %100eko igoera izango dute Tasa Orokorrearekiko.

Lokaletako obregatik egindako lekualdaketak eta derrigorrezko botatzeak eragindakoak salbuetsita egongo dira.

Salbuespenak:

- Ondorengo hauek salbuetsita egongo dira tasa ordaintzetik, baina ez dagokion baimena eskuratzetik:
 - Lokaletako obrak direla eta larrialdiko behin-behineko egoerak eraginda lekuz aldatu beharra dutenak, baldin eta dagokion baimena badute.
 - Derrigortutako botatze-lanek, erorketek, suteek eragindako lekualdaketek, eta agindu edo xedapen ofizialak betetzeko egin direla frogatzen direnek.
- Aurreko puntuko a) idazatian aipatutako salbuespena aurretiko lokala egokitu edo zaharberritu ondoren irekitzea hartzen du bere barne, 8 hilabete baino gehiago pasatu ez badira.
- Lehen puntuko b) idazatiari dagokionean, salbuespen horrek aurretiko lokala egokitu edo zaharberritu, edo aurreko lokalaren ordeztu lokal berria ere barne ulertzen ditu, baldin eta titularrak aurreko lokala lagatzeagatik inolako kalteordainik jaso ez badu.
- Bi salbuespenen kasuan, derrigorrezkoa izango da irekiko den lokal berriak zaharraren azalera bera izatea eta jarduera bera burutzea.
- Halaber, Debagoienako Mankomunitatea tasa honen ordainketatik salbuetsita dago.

Hobariak:

- Kuotaren % 50eko hobaria izango dute toki ezegokian (nahiz eta baimendua edo toleratua izan) dauden lokal edo establezimenduak Udal Administrazioak egokitzen dituen tokietara eramaten direnean, lokal berrian ere lehengo jarduera bera garatzeko bada.
- Ondoko hauek kuotaren % 80ko hobaria izango dute:
 - Senar-emazte eta aitzineko eta ondorengo arteko titular aldaketak.
 - Elkarte Ez Anonimoen izen sozialaren aldaketa, bazkideren baten heriotzagatik bada.

H epigrafea: Autotaxien eta gainerako alokairu ibilgailuen eta autoeskoletakoen baimenak luzatzeko zerbitzuak

Lehenengo epigrafea: Taxista lanetan iharduteko baimenak	€
Baimenaren udal emakida bakoitzeko	1.327,05
Baimenen erabilera eta ustiapena, urtean	18,60
Lizentzia eskualdatzeko baimenagatik	1.775,10
Epigrafe honetako baimenak "mortis causa" dela medio eskualdatzerakoan, kuotaren %80ko hobaria izango dute	
Bigarren epigrafea: Txoferrik gabeko ibilgailuen alokairuko baimenak	
Baimenaren udal emakida bakoitzeko	194,25
Baimenen erabilera eta ustiapena, urtean	18,60
Hirugarren epigrafea: Baimendutako emakidadun ibilgailuen aldaketa	21,85

I epigrafea: Ibilgailuak ibilgetzea eta bide publikotik kentzea

- Bide publikotik kendu eta udal depositura eramateagatik, 50,00 € eta 8,30 € gehiago bertan

egiten duen egun bakoitzeko, ibilgailua depositura eraman eta hurrengo egunetik hasita.

b) Ibilgetzeagatik, 30,00 €.

Hori guztia egindako arau-urraketaren salaketagatik dagokion isunaren zenbatekoaz aparte, aurretik jarri eta ordaindu gabe daudenak ere gaineratuz.

J Epigrafea : Ur-hornidura zerbitzua:

1. Etxeko erabilera

Tarifak bi kopuru izango ditu, bat fijoia eta bestea aldakorra ur-kontsumoaren arabera. Kopuru fijoia 10,40 €/hiruhilero izango da eta aldakorra, hiruhilero ere, 50 m³-ko kontsumora arte 0,936 €/m³ eta 50 m³-ko kontsumotik gora 1,508 €/ m³

2. Merkataritza eta zerbitzuak

Tarifak bi kopuru izango ditu, bat fijoia eta bestea aldakorra ur-kontsumoaren arabera. Kopuru fijoia 10,40 €/hiruhilero izango da eta aldakorra, hiruhilero ere, 50 m³-ko kontsumora arte 0,936 €/m³ eta 50 m³-ko kontsumotik gora 1,508 €/ m³

3. Industria, ostalaritza eta merkatalguneak, ondorengoak barne, hiruhilero eta 50 m³-ko minimoarekin

+Harategi eta arrandegiak

+Iturjin, igeltsero, aroztegi, margolari eta beste gremio guztiak

+Ibilgailu tailerrak

50 m³ arte: 1,082 €/ m³

50 m³tik gora: 1,31 €/ m³

4. Ikastetxe, eskola eta ikastolak (Mizpirualde egoitza, Agorrosin igerilekua eta Udal Euskaltegia ere)

Tarifak bi kopuru izango ditu, bat fijoia eta bestea aldakorra ur-kontsumoaren arabera. Kopuru fijoia 10,40 €/hiruhilero izango da eta aldakorra, hiruhilero ere, kontsumo oro 0,936 €/ m³.

5. Jabe komunitateetako kontadore bakarra (ur-beroa), minimo gabe

erabiltzaile kopurua x 20 m³ arte, hiruhilero 0,71 €/ m³

erabiltzaile kopurua x 20 m³tik gora, hiruhilero 1,47 €/ m³

Tarifa hau aplikatzeko baldintza hau bete beharko da: Udalean deklarazio bat aurkeztu beharko dute ur-beroaren erabiltzaile kopurua zein den azalduz.

6. Kontadoreen kontserbazioa

€

20 mm.tik beherakoak 2,30

25 mm.koak 3,70

30 mm.koak 4,85

40 mm.koak 15,16

50 mm.koak 17,19

65 mm.koak 21,32

80 mm.koak 27,20

100 mm.koak 33,23

7. Lotuneen kontserbazioa

€

Tarifa 1-ekoak

0,81

Tarifa 2-koak	0,81
Tarifa 3-koak	3,72

8. Sarera lotzeko eskubideak	€
Zerbitzuan alta, kontadorea jarri barik -lehendik dagoelako-	35,75
Zerbitzuan alta, 13 mm.ko kontadorearekin	80,60
Zerbitzuan alta, 15 mm.ko kontadorearekin	79,50
Zerbitzuan alta, 20 mm.ko kontadorearekin	88,10
Zerbitzuan alta, beste neurri bateko kontadore batekin: 60 € gehi kontadorearen prezioa	
Sare orokorrerako lotura, lehen aldiz	112,65

"Uraren ziklo osoaren kudeaketa arautzen duen Ordenantza" epigrafe honen osagarri izango da.

Kudeaketaren inguruan, alta eta bajen prorrateoa horrela izango da:

- Epe osoan alta emanda dagoen abonatu batek, nahiz eta epe naturalaren araberako proportzioak aplikatu, %100 ordaindu beharko du.
- Epe osoan alta emanda ez dagoen abonatu batek:
 - Titular aldaketak: Industrialak ez diren kasuetan, proportzioa aplikatuko da kontsumoari lotutako tarifetan eta zaborrean, bi abonatuei. Kuota finkoak -uraren zati finkoa eta bi kanonak- oso-osorik ordaindu beharko dituzte bi abonatuek. Industrialetan, ez da proportziorik aplikatuko ur-tarifetan baina bai zaborrean.
 - Behin-betiko bajak: Industrialak ez diren kasuetan, urari dagozkion kontzeptuetan, epe naturalaren araberako proportzioak aplikatuko dira kontsumoari lotutako tarifetan, baina zaborraren kontzeptua osoki ordaindu beharko du. Industrialetan, ez da proportziorik aplikatuko ur-tarifetan baina bai zaborrean.
 - Altak: Industrialak ez diren kasuetan, proportzioa aplikatuko da kontsumoari lotutako tarifetan eta zaborrean. Kuota finkoak -uraren zati finkoa eta bi kanonak- oso-osorik ordaindu beharko ditu abonatuak. Industrialetan, ez da proportziorik aplikatuko ur-tarifetan baina bai zaborrean.

K epigrafea: Udal frontoiak, Igerilekuak eta kiroldegiko instalazioak erabiltzea.

KIROL ZERBITZU ETA INSTALAZIOAK.

- Epigrafe honen eraginetarako, ulertuko da ERABILTZAILA dela kirol edo jarduera fisiko bat praktikatzen duena Bergarako Udalaren jabetzako kirol eremuetan edo Bergarako Udalak erabilera hitzartuta duen kirol eremuetan (aurrerantzean kirol instalazioetan).
- Ordenantza honetako epigrafe honen eraginetarako ondorengo adin tarteak finkatzen dira:

- ADINA.** Ordenantza honetako epigrafe honen eraginetarako ondorengo adin tarteak finkatzen dira:

0 urtetik 2ra	3tik 13ra	14tik 17ra	18tik gora
---------------	-----------	------------	------------

- Beraz, adina edukiko da kontuan, espresuki beste irizpide bat aplikatzen dela jasotzen ez bada.
- Tasa kobratuko da hilabete horretan erabiltzaileak duen adinaren arabera.
- Urteak betetzen dituen hilabetetik aurrera, adin berriaren arabera tasa ordaindu beharko du erabiltzaileak.

FAMILIA. Abonuaren antolaketarako Konbibentzia Unitateak izango du familia balioa. Familia (bi tutorek eta beren seme/alabek osatzen duten unitatea) eta tutore bakarraz osatutako familiak (alargun edo/eta monoparentalak).

GAZTE IKASLEA. Gazte ikaslea izango da Bergaran erroldatuta dagoen eta ikasketak egiten ari den eta gainera diru sarrerarik ez duen 18-22 urte bitarteko herritarra. Egoera hau ziurtatzeko herritarrek abonua egiterakoan honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- INEMeko ziurtagiria, langabeziagatik jasotako laguntzaren onuraduna ez dela eta Gizarte Segurantzaren altan ez dagoela egiaztatzeko.
- Une horretan egiten ari den ikasketen ziurtagiria.

Abonua murrizteko aukera ikasturte horretarako soilik izango da, baldin eta hurrengo urteko ordenantza fiskalek horrela jasotzen badute.

TARIFA SOZIALA. Tarifa soziala aplikatuko zaie Bergaran erroldatuta dauden Konbibentzia Unitateei, diru-sarrerak bermatzeko errenta edo/eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzen dutela ziurtatzen badute. Tarifa soziala eskatzen duten Konbibentzia Unitateek Udal Kirol Zerbitzuan (UKZ) aurkeztu beharko dute prestazio ekonomikoen onuradunak direla ziurtatzen duen agiria. Baiezko kasuan, UKZ-ek dagokion tarifa soziala aplikatu du laguntza horien indarraldian zehar.

TARIFA BEREZIAK APLIKATZEA. Tarifa bereziak aplikatzeko baldintzak desagertutakoan (hau da, adina, gazte ikaslea eta tarifa soziala), Kirol Zerbitzuak automatikoki baldintza berriei dagokien abonua kobratuko du.

ERROLDATUTAKO PERTSONA. Bergarako udalerrian erroldatuta dauden pertsona oro izango dira. Tarifa sozialen, ikasleen eta Konbibentzia Unitate monoparentalen onura Bergaran erroldatutako herritarrek bakarrik izango dute.

KIROL ABONUAK.

Tasak ondorengoak izango dira, abonua mota, Bergaran erroldatuta egon edo ez, adina eta familia unitate bakoitzeko abonatu kopuruaren arabera.

BERGARAKO KIROL ABONU ARRUNTA.

Abonu arruntean dauden zerbitzuak dira ezarritako ordutegi eta egutegi zehatzetan instalazio hauen erabilera:

- Agorrosin Ekintza Guneko igerilekuko aldagelak, igeri ontziak eta berdegunea.
- Agorrosin Ekintza Guneko aldagelak, fitness aretoa eta bertoko begirale-aholkularitza zerbitzua.
- Labegaraietako aldagelak eta boulderra.
- Beherapenak jarduera eta ikastaroetan.
- Kirol instalazioen erreserban beherapenak eta astebete aurretik erreserba egiteko aukera (erreserbatu daitezkeen kirol instalazioak aurrerago zehazten diren udal pilotalekuak, tenis-pista, futbol-zelai eta Labegaraietako erabilera anitzeko kantzak dira).
- 2010 urtean, eta herrien arteko kirol zerbitzuen arteko Debagoiena Kirol Abonuarentzat zehaztu eta jasotako zerbitzuak.

KIROL ABONU ARRUNTA		Erroldatuak			Ez erroldatuak	
Urtekoa	Urtekoa tarifa sozialarekin	Hilekoa	Hilekoa tarifa sozialarekin	Urtekoa	Hilekoa	
0 urtetik 2ra. UME.						
	0 €	0 €	0 €	0 €	0 €	
3 urtetik 13raino. HAUR.						
Haurra, familiako helduak abonatu direnean (familia monoparentalak barne)	0 €	0 €	0 €	0 €	0 €	
Haurra, familiako heldu bat abonatu denean.	41,25 €	15,5 €	3,75 €	1,5 €	61,90 € 5,65 €	

Haurra, familia unitatean helduak abonatu ez direnean.	82,5 €	33 €	7,5 €	3 €	123,75 €	11,25 €
14 urtetik 17raino. GAZTE.						
Gaztea, familiako helduak abonatu direnean (familia monoparentalak barne)	41,25 €	15,5 €	3,75 €	1,5 €	61,90 €	5,65 €
Gaztea, familiako heldu bat abonatu denean.	66 €	26,4 €	6 €	2,4 €	99 €	9 €
Gaztea, familia unitatean helduak abonatu ez direnean.	99 €	39,6 €	9 €	3,6 €	148,5 €	13,5 €
GAZTEA IKASLEA ETA DIRU SARRERARIK EZ DUENEAN.						
Gazte ikaslea, familiako helduak abonatu direnean (familia monoparentalak barne)	41,25 €	15,5 €	3,75 €	1,5 €		
Gazte ikaslea, familiako heldu bat abonatu denean.	66 €	26,4 €	6 €	2,4 €		
Gazte ikaslea, familia unitatean helduak abonatu ez direnean.	99 €	39,6 €	9 €	3,6 €		
18tik gora. HELDU.						
	165 €	66 €	15 €	6 €	247,5 €	22,5 €

BERGARAKO BAINUETXEKO ABONUA.

Abonu honek Agorrosin Ekintza Guneko bainuetxea erabiltzeko baino ez du balioko. Ez zaizkio abonatu arruntaren zerbitzurik atxikitzen.

BAINUETXERAKO ABONUA		Erroldatuak			Ez erroldatuak	
Urtekoa	Urtekoa tarifa sozialarekin	Hilekoa	Hilekoa tarifa sozialarekin	Urtekoa	Hilekoa	
GAZTEA IKASLEA ETA DIRU SARRERARIK EZ DUENEAN.						
Gazte ikaslea, familiako helduak abonatu direnean (familia monoparentalak barne)	27,5 €	11 €	2,5 €	1 €		
Gazte ikaslea, familiako heldu bat abonatu denean.	44 €	17,6 €	4 €	1,6 €		
Gazte ikaslea, familia unitatean helduak abonatu ez direnean.	66 €	26,4 €	6 €	2,4 €		
18tik gora. HELDU.						
	110 €	66 €	10 €	4 €	165 € 15 €	

BERGARAKO KIROL ABONU OSOA.

KIROL ABONU OSOA		Erroldatuak			Ez erroldatuak	
Urtekoa	Urtekoa tarifa sozialarekin	Hilekoa	Hilekoa tarifa sozialarekin	Urtekoa	Hilekoa	
GAZTEA IKASLEA ETA DIRU SARRERARIK EZ DUENEAN.						
Gazte ikaslea, familiako helduak abonatu direnean (familia monoparentalak barne)	49,5 €	19,8 €	4,5 €	1,8 €		

Gazte ikaslea, familiako heldu bat abonatu denean.	79,2 €	30,8 €	7,2 €	2,8 €		
Gazte ikaslea, familia unitatean helduak abonatu ez direnean.	118,8 €	47,30 €	10,8 €	4,3 €		
18 urtetik gora. Helduak.						
	198 €	79,2 €	18 €	7,2 €	297 €	27 €

EGUNEKO SARRERAK.

EGUNEKO BANAKAKO SARRERAK.

- Sarrera honek eskubidea ematen du igerilekua, bainuetxea, fitness aretoa eta beronen aholkularitza zerbitzua, Agorrosin Ekintza Guneko eta Labegaraietako aldagelak erabiltzeko.
- Eremu bakoitzerako sarbide eskubidea instalazio arauditan jasotakoaren arabera egingo da.
- Sarrera honekin nahi adina aldiz sartu eta irten ahal izango da instalazioetatik egun horretan bertan zehar, betiere salmenta txartela aurkezten bada.
- Tarifak ondorengoak izango dira:

	Erroldatuak	Ez erroldatuak
UMEA. 0 urtetik 2ra.	0 €	0,00 €
HAUR-GAZTE. 3 urtetik 17ra.	2,5 €	3,75 €
HELDU. 18 urtetik gora.	5 €	7,50 €

EGUNEKO TALDE SARRERA.

- Udal Kirol Zerbitzuari eskaera idatzia egiten dioten entitateei baiezkoa ematen bazaie TALDE SARRERA TARIFA aplikatuko zaie. Sarrera hau eskola, udaleko beste zerbitzuetako ekintzetako eta izaera bereziko taldeentzako aplikatu da. Agorrosin Ekintza Guneko idazkaritzan udaleko baimena aurkeztu eta ordainketa sarrera une berean egin beharko dute.
- Taldeak gutxienez 15 pertsonakoa izan behar du, hortik behera ez da talde sarrera aplikatuko.
- Eguneko talde sarrera adinaren araberrako bi tasa kobratuko dira. Adinak nahasiak badira taldearen gehiengoaren adina hartuko da kontutan.

	Erroldatuak	Ez erroldatuak
HAUR-GAZTE. 0 urtetik 17ra.	1,5 €	2,25 €
HELDU. 18 urtetik gora.	3,5 €	5,25 €

KIROL INSTALAZIOEN ERRESERBAK

LABEGARAIETAKO TASAK

Ondorengo koadroetan jasotako kirol instalazioak erreserbatu ahal izango dira dagozkien tasak ordainduta:

Tenis pista	Erroldatuak eta abonatuak	Ez erroldatuak eta abonatuak	Erroldatuak eta ez abonatuak	Ez erroldatuak eta ez abonatuak
Ordubete. Argiarekin beharrezkoa denean.	5,5 €	8,25 €	6,5 €	9,75 €
Hilabete ko erretserba, astean ordu bat. Argiarekin beharrezkoa denean.	16,5 €	24,75 €	19,5 €	29,25 €
Eskubaloï pistak	Erroldatuak eta abonatuak	Ez erroldatuak eta abonatuak	Erroldatuak eta ez abonatuak	Ez erroldatuak eta ez abonatuak
Barruko kantxa osoa. Ordubete. Argiarekin beharrezkoa denean.	26 €	39 €	30,6 €	45,9 €
Kanpoko kantxa osoa. Ordubete. Argiarekin beharrezkoa denean.	9 €	13,5 €	10,6€	15,9 €

Labegaraietako eskubaloi pista estalia.				
Kiroi jarduerak ez diren ekitalditarako.			75 € / eguneko	

- Erreserba eta alokairuak Labegaraietako Kiroldegiko Tabernan ordainduko dira.
- Hileko erreserba eta alokairuak Agorrosin Ekintza Guneko idazkaritzan kudeatuko dira.
- Kiroi jarduerak ez diren ekitaldien tasa Udaletxeko Kontuhartzaitetzan ordainduko da.

UDAL PILOTALEKUETAKO TASAK.

Udal pilotalekueta ko erreserbak (hileko)	Abonatuak		Ez abonatuak	
	Erroldatuak	Ez erroldatuak	Erroldatuak	Ez erroldatuak
Elorregikoa	13 €	19,5 €	17 €	25,5 €
Basalgokoa (*)	11 €	16,5 €	12,8 €	19,2 €
Zabalotegikoa (*) eta bere aldagelak.	12,4 €	18,6 €	14,7 €	22,05 €
Zabalotegi, Osintxu, Angiozar, Fraiskozuri eta Uberakoak eta bere aldagelak.	16 €	24 €	19 €	28,5 €
Fraiskozurikoa (orduak).	5,5 €	8,25 €	6,5 €	9,75 €

- Alokaturako orduetan argia, beharrezkoa denean, sartuta dago. (*) Argia fitxekin duten udal pilotalekuetan izan ezik, horietan 1,5 € ordaindu beharko da fitxa bakoitzeko, abonatua izan edo ez izan.
- Udalak Uberako Guraso Elkartearekin Uberako frontoiaren zesioa bereganatuko

balu, pilotaleku horretako kudeaketa tasa aldagela eta argia duen beste frontoien tasa bera kobratuko zaie erabiltzaileei.

- Aldagelak batzuetarako giltzak erabili behar dira. Erabiltzaileek aldagela horietako giltza nahi balute 20 €ko fidantza utziko dute erretserba mantentzen duten bitartean. Erretserba egiteari utzi eta giltzak Agorrosin Ekintza Guneko idazkaritzan itzultzen dituztenean itzuliko zaie fidantza.

IPINTZA UDAL FUTBOL ZELAIKO ERRETSERBA.

Ipintza udal futbol zelaiko erretserba	Erroldatuak	Abonatuak		Ez abonatuak	
		Ez erroldatuak	Erroldatuak	Ez erroldatuak	
Futbol 8 zelaia (45 min). Saioko erretserba.	30 €	45 €	40 €	60 €	
Futbol zelai osoa (45 min). Saioko erretserba.	45 €	67,5 €	55 €	82 €	

1. Futbol zelaietako alokairutan argia, beharrezkoa denean, sartuta dago.

- Erreserbak eta ordainketak Agorrosin Ekintza Guneko idazkaritzan egingo dira.
- Erabiliko diren aldagelak Agorrosin Ekintza Gunekoak izango dira.

KIROL EREMUETAN ERRESERBAK EGITEKO.

Erreserbak egiteko ondorengo arauak aplikatuko dira, udal kirol instalazioen erabilera arautuko duen ordenantza onartzen ez den bitartean:

Erreserba egiten den unean bertan ordaindu beharko da tasa.

Abonatuak erreserbak astebete lehenago egiteko aukera izango du. Bestelako erabiltzaileek, berriz, bi egun natural lehenago.

Egun eta ordu berberetarako aurkeztutako bi eskaeren edo gehiagoren artean, lehentasuna izango du aurretik egin denak.

Kirol instalazioak ondorengo jarduera fisiko zehatz hauek burutzeko erreserbatu ahal izango dira:

Labegaraietako barruko kantxa: areto futbola, saskibaloia, boleibola, eskubaloia, tenisa eta irristaketa.

Labegaraietako kanpoko kantxa: areto futbola, saskibaloia, eskubaloia eta irristaketa.

Labegaraietako tenis pista: tenisa.

Udal pilotalekuak, euskal pilotako joko aldaeretan eta frontenisean jokatzeko.

Ipintza udal futbo-zelaia futboleant eta softbalean aritzeko.

Beste jarduera fisikoren bat egin nahi bada instalazio horietan, Kirol Zerbitzuari baimena eskatu eta honek baimena idatziz eman beharko du. Baimena emanaz gero, goian jasotako tasak ordaindu beharko dira.

Nahikoa izango da erreserba eskaera egiten dutenen artean erabiltzaile bakar bat abonatu izatea, abonatu tarifa aplikatzeko.

Erreserba-eskaerak pertsona bakar batek egin ahal izango ditu.

KIROL EREMUAK ERRESERBATZEKO TASATIK SALBUETSITA.

Tasa horiek ordaintzetik salbuetsita egongo dira ondorengo hauek:

☒ **IKASTETXEETAKO JARDUERAK ETA ESKOLA KIROLA.** Hau da, Bergarako Eskola Kirol Kontseiluak onartzen dituen ekintzetako ikasleek DOAKO sarrera izango dute kirol instalazioetara, soilik eta bakarrik, onartutako jardueretan. Hortik kanpo, kasuan kasuko tasa aplikatuko da.

☒ **BERGARAKO KIROL ENTITATEAK.** Hau da, Bergarako udal kirol instalazioak edota Udalarekin hitzartua dagoen beste instalazioen bat bere entrenamendu eta lehiaketetarako erabiltzen dituzten kirol entitateek DOAKO erabilera izango dute halaxe adierazten zaien baimena ematen zaien jardueretan.

PREMIA FISIKO, PSIKIKO ETA SENTSORIALAK DITUZTEN PERTSONEKIN LAN EGITEN DUTEN ENTITATEAK.

Atal honen hasieran aipatzen diren Bergarako entitateek ariketa fisikoaren bidez hainbat urritasun lantzeko kirol instalazioen premian badaude, eskaera aurkeztu beharko diote BERGARAKO KIROL ZERBITZUARI interesaturik dauden instalazioa eskatuz. Eskaera onartzen bada, taldeei ondorengo tasa aplikatuko zaie:

Instalazioak.	€ / orduko
Taldearen igerileku ontzien erabilera orduko eta igeriketa kale bakoitzeko.	6 € /orduko
Taldearen kantxa erabilera orduko	4 € /orduko

4. JARDUERAK ETA IKASTAROAK.

Tasak.

Ordaindu beharreko tasei dagokionean, bereiztu egingo dira abonatuak eta ez abonatuak, eta Bergaran erroldatuta edo ez erroldatuta daudenak.

Abonatu bezala abonatu arrunta edo osoa duen pertsona ulertuko da. Irizpide honetatik at geratzen dira bainuetxeko abonua duten pertsonak.

UR IKASTAROAK	IRAUPENA / KOBARRANTZA	Abonatuak		Ez abonatuak	
		Erroldatuak	Ez erroldatuak	Erroldatuak	Ez erroldatuak
Ume txikientzat ur ikastaroak. 0 urtetik 2ra.	Ikasturte / hiruhilekoa.	45 €	67,5 €	99 €	148,5 €
Haur Igeriketa Eskola. Ikastaroak.	Ikasturte / hilekoa.	15 €	22,5 €	33 €	49,5 €
Helduen igeriketa ikastaroak. (hasiera, hobekuntza eta trebakuntza)	Ikasturte / hilekoa.	15 €	22,5 €	33 €	49,5 €
Hileko ur ikastaroak. Astean ordubeteko bi eskola saio.	Ikasturte / hilekoa.	15 €	22,5 €	33 €	49,5 €
Hiruhileko ikastaroak. Astean ordubeteko bi eskola saio.	Ikasturte / hiruhilekoa.	45 €	67,5	99 €	148,5 €

JARDUERAK ARETOETAN	IRAUPENA / KOBARRANTZA	Erroldatuak	Ez erroldatuak	Erroldatuak	Ez erroldatuak
------------------------	---------------------------	-------------	----------------	-------------	-------------------

Gimnasia + 60. Astean ordubeteko bi eskola saio.	Amaigabea / Hilekoa.	15 €	22,5 €	33 €	49,5 €	
Astean ordubeteko saio bat.	Amaigabea / Hilekoa.	7,5 €	11,25 €	16,5 €	24,75 €	
Astean ordubeteko bi eskola saio.	Amaigabea / Hilekoa.	15 €	22,5 €	33 €	49,5 €	
Astean ordubeteko hiru saio.	Amaigabea / Hilekoa.	22,5 €	33,75 €	49,5 €	74,25 €	



JARDUERA BEREZIAK	IRAUPENA / KOBRANTZA	Erroldatuak		Ez erroldatuak		Ez erroldatuak
Igeriketa egokitua Fibromialgia	Amaigabea / Hilekoa.	15 €	22,5 €	15 €	22,5 €	
3. adina.	Amaigabea / Hilekoa.	15 €	22,5 €	15 €	22,5 €	



Matrikula

Jardueretan izena ematerakoan 17 €-ko matrikula ordaindu beharko dute, Bergarako kirol abonatu izan edo ez izan. Ikastaroetan, berriz ez dute matrikularik ordaindu beharko.

Erabiltzaileari ordaindutako matrikula itzuliko zaio bi kasu hauetan:

-  Erabiltzaileak, ekainaren 25a baino lehen eta Agorrosin Ekintza Guneko idazkaritzan, hala komunikatuz, hurrengo ikasturteko irailean jarraitu nahi ez duela adierazten badu.
-  Gutxieneko asistentzia betetzen ez denean eta erabiltzailea plaza uztera behartzen denean.

Tasen ordainketa.

Jardueretan tasak hilerok ordaindu beharko dira, jarduera bakoitzarentzat ezarritako egutegiaren arabera eta bajaran ematen ez den bitartean.

Itxaron zerrenda eta saioetako asistentzia kontrola.

Saio bakoitzean erabiltzaileen asistentzia kontrolatuko da. Asistentzia etorrera hau bi hilean 8 kale ez justifikatuena bada erabiltzaileak plaza galduko du eta plaza itxaron zerrenda dagoen lehenengoari eskainiz.

BESTELAKO TASAK.

	Erroldatuak	Ez erroldatuak
1 unit. Silikonazko igeriketarako txanoa.	4 €	6,00 €
1 unit. Latexko txanoa	2 €	3,00 €
Takilletako giltza galdu eta berritzea.	3 €	4,50 €
Sarrera-txartela galdu edo lapurtu eta berritzea	5 €	7,50 €

KIROL TASEN ORDAINKETAK.

Kirol tasak ordaintzeko bi era daude:

1. Ordainketak banketxetan helbideratuz. Zerbitzuetan izena emandakoan kontu korrontea ematea ezinbestekoa izango da izen emateak balioa izan dezan.
2. Norbera ordainketa banketxean egitea. Erabiltzailea UKZeko kontu korrontean dirua sartu eta ordainagiria aurkeztu beharko du. Ordainagiria aurkezten ez bada izena ematea ez da balekoa izango.

	Abonuak	Ikastaro / jarduerak	Alokairuak
Norberak dirua sartzea	Abonuko lehen erabilera egin baino lehen.	Ikastaro bakoitzeko lehen 5 egunetan.	Alokairu bakoitzeko lehen 5 egunetan.
	Helbideratzea	Hileko lehen 5 egunetan.	

1. Tasa epetan ordaindu gabe badago, UKZek ordainketa egin ez denaren berri kontu hartzailletza sailari emango dio eta honek diru-bilketa exekutiboaren prozedura abian jarriko du tasa kobratzeko. Kasu horretan, UKZek baja emango dio erabiltzaileari kirol zerbitzu guztietan.
2. Jarduera baten tasa ordaindu ez duelako baja ematen bazaio, matrikula gisa ordaindutakoa ez zaio itzuliko.

ⓧ AZKEN XEDAPENA.

- ⓧ** Epigrafe honetan zehaztu ez denetan, ordenantza fiskalaren zati bateratuan jasotakoa aplikatuko da.
- ⓧ** Ordenantza honetatik sor daitezkeen erabilera zalantzak indarrean dauden araudietan osatuko dira.

L epigrafea: Udal Euskaltegia

09-10 ikasturteko tarifak: Orduko 1,14 €-ko matrikula

M epigrafea: Etxez-etxeke Zerbitzua

Etxeko Laguntza Zerbitzuaren udal araudi berria 2006ko apirilaren 24an onartu zuen Udalbatza Osoak

Autonomoak

- 1) Indarrean dagoen udal araudia indarrean sartu aurretik zerbitzua jasotzen hasi zirenen prezioa 10,50 €/orduko izango da.
- 2) Indarrean dagoen Etxeko Laguntza Zerbitzua araudia indarrean sartu ondoren onartutako zerbitzuek ordaindu beharreko tasa izango da adjudikazio prezioaren parekoa, zerbitzuko udal araudiaren 21.artikuluari jarraituz.

Ezinduak

- 1) Abenduaren 22ko 72/2002 Foru Dekretua indarrean sartu aurretik zerbitzua jasotzen hasi zirenek 10,50 €/orduko.
- 2) 72/2002 Foru Dekretua indarrean sartu eta gaur egun indarrean dagoen Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Udal araudia arte zerbitzua jasotzen hasi zirenek, Foru Aldundiak menpeko ordu bakoitzeko ordaintzen duen kopurua.
- 3) Indarrean dagoen Etxeko Laguntza Zerbitzuaren Udal araudia indarrean sartu ondoren zerbitzua jasotzen hasten direnen kasuan, ordaindu beharreko tasa izango da adjudikazio prezioaren parekoa, zerbitzuko Udal araudiaren 21.artikuluari jarraituz.

Hobariak

Erabiltzaileak hobariak izan ditzake. Horrela, erabiltzaileak ordaindu beharreko tasaren %100 ala gutxiago ordaindu behar duen Etxeko Laguntza Zerbitzuko udal araudiaren 23. artikulua eta II. eranskinean zehaztutakoaren arabera finkatuko da.

Aurretik datozen kasuetan, hobariak 1996 irailaren 20an onartutako Udal Erregelamenduan edo 72/2002 Foru Dekretuan jasotakoak izango dira, hau da, zerbitzua ematen hasi zitzaizkion aplikatu zitzaizkion araudian aurreikusitakoak.

N epigrafea: Eguneke egonaldietarako zentroa

Gipuzkoako adineko pertsona ezinduentzako lekuak eskatu eta emateko arauak eman dituen Apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuak aipatutakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamenduak finkatuko du 2010. urtean Eguneke Zentroko Erabiltzaile bakoitzak egin behar duen ekarpena.

Eguneke Zentroko erabiltzailea autonomia den kasuan, ekarpena finkatzeko Gipuzkoako Foru

Aldundiko Gizarte Politikarako Departamenduak ezinduek egin beharreko ekarpena kalkulatzeko erabiltzen dituen irizpide berberak erabiliko dira.

Ñ epigrafea: Mizpirualde Zaharren Egoitzan zerbitzuak emateari buruzkoa

Mizpirualde Zaharren Egoitzako zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen
ORDENANTZA FISKALA

I.-XEDAPEN OROKORRA

1.-artikulua.-

Uztailaren 5eko11/1989 Foru Arauak, Toki Haziendak arautzen dituenak, 43. artikulutik 50. artikulura ezartzen duenari jarraituz, Mizpirualde Zaharren Egoitzako zerbitzuak eskaintzeagatik tasak ezarri eta exijitzen ditu.

II.-EZARPEN EREMUA

2. artikulua.-

Ordenantza hau udalerrri guztian izango da aplikagarria.

III.-SUBJEKTU PASIBOA

3.-artikulua.-

Egoitzan bizi diren edo bizi izango diren pertsonak ordaindu beharko dute tasa hau.

IV.-PREZIOA ORDAINTZEKO DERRIGORTASUNA

4. artikulua.-

Egoitzak pertsona onartzen duen une berean sortzen da tasa ordaintzeko derrigortasuna.

V.-KUOTAK

5. artikulua.-

2010erako kuotak ondorengoak izango dira:

1) EZINDUAK EZ DIREN EGOILIARRAK

A) 2001-01-01 baino lehen sartutakoak:

A-1.-1994-01-01 baino lehen sartutakoak:
Banako gela 774,80 €

A-2.-1993-12-31 baino geroago sartutakoak:
Ezindua ez den egoiliarraren kuota 910,00 €

B) 2000-12-31 baino geroago eta 2002-07-01 baino lehenago sartutakoak:
Ezindua ez den egoiliarraren kuota 936,00 €

C) 2002-06-30 baino geroago sartutako egoiliarren kuotak
2005-01-01 baino lehenago sartu eta ezindua ez dena 1.159,60 €
2004-12-31 baino gerorago sartu eta ezindua ez dena 1.560,00 €

D) Kontuan hartzeko beste puntu batzuk

D-1.- Urtean zehar ezindua ez den egoiliarren kondizioa aldatzen bada une horretatik aurrera Gipuzkoako Foru Aldundiak apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuaren eta abenduaren 30eko 801/2002 Foru Aginduaren arabera oinarritutako kuota ezarriko zaio.

D-2.- Egoiliarra 1994-01-01 baino lehen sartu bada eta bere hileko pentsioa besterik ez badauka (bestelako ondasunik ez badauka), honela kalkulatu da bere kuota: hileko pentsioari, aparteko lansariak kontuan hartu gabe, horren %75a aplikatuko zaio (artikulu honetako A-1 idazatian ezarritako gehienezkora iritsi arte). Beste %25 bere erabilera liberako geldituko litzateke, eta kopuru hori, aparteko lansarien zati proportzionala kontuan hartuta, ezingo da urte horretako hileko Gutxieneko Lanbidearteko Soldataren %20a baino baxuagoa izan.

D-3.- 1993-12-31tik hona sartutakoen kasuan, eta egoiliarrek bere hileko pentsioa besterik ez badauka (bestelako ondasunik ez badauka), honela kalkulatu da bere kuota: hileko pentsioari, aparteko lansariak kontuan hartuta, horren %75a aplikatuko zaio (artikulu honetako A-1 idazatian ezarritako gehienezkora iritsi arte). Beste %25 bere erabilera liberako geldituko litzateke, eta kopuru hori ezin izango da urte horretako hileko Gutxieneko Lanbidearteko Soldataren %20a baino baxuagoa izan.

D-4.-Egoiliarrek finantza ondasunik (dirua edo aurrezki-kontuak edo kontu finantzarioak) badauka, izendatutako kuota ordaindu beharko du, bere pentsio-mailari begiratu barik; pentsioaren %75aren kuota ordaintzea egokitu balitz, urtean bere erabilera liberako geratuko litzaiokeen kopurua eta bere finantza-ondasunen kopurua berdinak izan arte.

D-5.-Egoiliarrek ondasun higiezinak besterik ez badauzka, D-2 eta D-3., idazatietan zehaztutako prozedura jarraituko da kuota kalkulatzeko.

2) EGOILIAR EZINDUAK ETA EZINTASUN HANDIA DUTENAK ETA UNITATE PSIKOGERIATRIKOETAKO ERABILTZAILEAK

Ezindu eta ezintasun handia duten egoiliarrei eta unitate psikogeriatrikoetako erabiltzaileei arreta ematea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuduntza da, berak finkatzen eta hitzartzen ditu, beraz, gehienezko prezioak eta egoiliarrek egingo dituzten ekarpenak.

Egoiliarrek egin behar duten ekarpena Gipuzkoako Foru Aldundiak finkatzen du apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretuaren eta abenduaren 30eko 801/2002 Foru Aginduaren arabera.

3) Aldi baterako egonaldiak

Dagokion Foru arauak ezartzen denera egokituko da.

VI. GESTIORAKO ARAUAK

6. artikulua.-

2002-06-30 baino geroago sartutako ezindu, ezindu handi eta unitate psikogeriatrikoetako erabiltzaileei 20/2002 foru dekretua aplikatuko zaie.

Beste kasuentzat:

1.-Zorraren errekonozimendua: egoiliarrek kuota nominala ordaintzen ez badu, zorraren errekonozimenduko eskritura egingo da Notarioaren aurrean eta egoiliarrek Fundazioarekin dituen betebeharrak ekonomikoak jasoko dira bertan. Horrekin batera, hileror zor duen kopurua (kuota nominalaren eta ordaindutako kuotaren arteko aldea) sinatuko du, hartarako

diseinatuko diren orrietan.

Egoiliarak bere buruaren jabe izatea eragozten dion ezgaitasun fisiko zein psikiko larriak balitu, ezgaitasuna lortzeko tramitazioa egingo da. Prozedura judizialean izendatzen den tutoreak sinatu beharko du kasu horretan Zorraren errekonozimenduko eskritura.

2.-Egoiliarra hiltzen denean, Fundazioak egindako zorra kobratu egingo du, zor duen kopurua bere aurrezki-kontuetatik kobratuz, halakorik balego.

Ondasun higiezinak balitu, zor den kopurua ordainduz kitatu ahal izango dute zorra legezko oinordekoek. Hala egin ezean, Egoitzak zorraren gainean duen eskubidea gauzatuko du, legez dagozkion era eta prozedura erabiliz.

Fundazioak hildakoaren hiletako gastuak ordaintzea garantizatuko du, gastu horiei aurre egiteko ondasunik ez badago.

3.-Egoiliarraren ondasunetan aldaketak izatearen ondorioz sortzen diren betebeharrak ekonomikoak honela zehazten dira:

3-1.-Sarrerako eskaria egitean, asken BOST URTEetan familiako edo beste inoren aldeko eskualdaketarik ez duela egin aitortu du.

3-2.-Zorraren errekonozimendua egitean, bere ondarean gertatzen den edozein gorabeheraren berri Fundazioari emateko konpromisoa hartuko du.

4.- Ordaintzeko era: egoiliarak hilabetea pasa ondoren ordainduko du kuota bakoitza, ondoren azaltzen diren moduetako edozein erabiliz:

a) Ordainketa eskudirutan eginez.

b) Titular gisa dagoen kontuetatik hilero kuota atera dezan Egoitzari baimena emanaz.

VII AZKEN XEDAPENA

7. artikulua

Ordenantza hau indarrean izango da aldaketaren bat edo indargabetzea erabakitzen ez den artean, eta 5. Artikuluan jasotzen diren kuotak 2010 ekitaldirako tasak izango dira-.

O epigrafea: Fraiskozuriko udal frontoiari buruzkoa

1.-Pilota partidua ez den beste edozein ekitaldi antolatzeko alokairua: 75,35 €/eguneko

2.-Pilota partidua ez den beste edozein ekitaldiren ondorengo derrigorrezko garbiketa bakoitzeko:

+beheko aldearena 178,45 €

+beheko eta goiko aldearena 237,55 €

3.-Udal taulatua, udaleko langileek muntatzea eta kentzea:

a)7,5 x 6 m-ko taulatua: 1.462,60 €

b)10 x 8 m-ko taulatua: 1.871,35 €

c)12 x 8 m-ko taulatua: 2.299,25 €

4.-Udal taulatua, norberak muntatzea eta kentzea (udal langile baten presentzia derrigorrezkoa izango da):

a)7,5 x 6 m-ko taulatua: 272,85 €

b)10 x 8 m-ko taulatua: 311,80 €

c)12 x 8 m-ko taulatua: 350,75 €

5.-Taulatu pribatua, norberak muntatzea eta kentzea (udal langile baten presentzia derrigorrezkoa izango da):

a)45 m2 edo gutxiagoko taulatua: 117,00 €

b)46 eta 80 m2 arteko taulatua:	155,95 €
c)81 m2 edo gehiagoko taulatua:	194,90 €
6.-Moketa jartzea eta jasotzea	140,50 €

Irabazi asmorik gabeko taldeak tasa honen ordainketatik salbuetsita egongo dira.

P epigrafea: Txakurtegia.

Etxeko animaliak edukitzea arautzen duen ordenantzaren arabera, tasa hauek ezarriko dira:

Animalia jasotzeagatik	15,00 €
Animalia txakurtegian egoteagatik:	3,50 €/eguneko
Animaliaren errenuntzia (33-4. artikuluan jasotako kasuan)	149,00 €

Zerbitzua arautzen duen ordenantzak epigrafe honen izaera osagarria izango du.

R epigrafea: Kamioi grua.

Kamioi grua erabiltzeagatik ondorengo tasak ezartzen dira: 62,75 €/irteerako

Zerbitzua eman beharreko tokia Bergaratik 15 km. baino gehiagora balego, gainera, 0,40 €/kilometroko.

Kasu guztietan udal txoferrak sartutako lanorduen kostua erantsiko da.

S epigrafea: Babes-etxea

Etxea erabiltzeagatik, tasa izango da 13,40 €/eguneko.

Tasa honen gaineko hobari eta salbuespenak babes-etxe zerbitzua arautzen duen erregelamenduan xedatutakoak izango dira.

C, D epigrafeko f atala, F eta G epigrafeendako oharra: Eskaera egiteko orduan Udalak autolikidazio erregimenean ordainaraziko du tasa hau. Hala-ta ere, C epigrafeko d atalekoak eta F epigrafeko lur banaketak ez dute autolikidazio sistema jarraitzen.

Honako hauek dira funtzionamendurako arauak:

-Autolikidazioa egiteko epea: eskaera aurkezten denetik zenbatuta, 10 eguneko gehienezko epea izango da.

-Aurreko idazatian xedatutakoa bete ezean, azaroaren 26ko 30/1992ko Legearen 42.1. artikulua dionari jarraituz, eskatzaileak bere eskaerari uko egin diola ulertuko da, eta bestelako tramitaziorik gabe artxibatu egingo da.

-Autolikidazioa egiteko, udal-bulegoetan horretarako prestatuta dagoen inprimakia bete, eta kasu bakoitzean behar den dokumentazioa (aurrekontua, fakturak, etabar) aurkeztu beharko da.

-Obra tasa gehi eraikuntza zerga 6.000 €tik gorakoa denean, zerga autolikidazio erregimenean eskatuko da baina zergadunak ordainketaren atzerapena edo zatiketa eskatu ahal izango du, beti ere, dagokion interesa ere ordainduz, autolikidazioa egin behar zen momentutik sortutakoa.

ALKATEA

IDAZKARIA

KONTUHARTZAILEA